

Begira



ULMA

Azaroa 2005
10. zkia.

Elkarrizketa:
José Luis Madinagoitia
ULMA Taldeko Lehendakaria



Solasean:
José Antonio Sáinz Alfaro,
Donostiako Orfeoiaren
Zuzendaria

Osteoporosiaren aurka:
prebentzioa eta tratamendua



azpimarragarriena... aurkibidea



10

18



23

3 Hizpidea...

4 Albisteak eta gaur egungo gaiak:

ULMA Handling Systems negozioak logistikaren sektoreko "lider marka" saria lortu du.

ULMA Hormigón Polímerok ordezkaria izango du Frantzian, lehen aldiz.

Hurrengo urte hasieran aurkeztuko du ULMA Taldeak bere irudi korporatibo berria.

ULMA Agrícola negozioak 4 hektareako instalazio bat egin du Mexikon.

14 Solasean:

José Antonio Sáinz Alfaro
Donostiako Orfeoiaeren zuzendaria.

16 Erreportajea

José Luis Madinagoitia
ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiko Lehendakaria.

18 Albiste osasungarriak:

Osteoporosiaren aurka;
prebentzioa eta tratamendua.

20 Zer deritzozu?

22 40 urte elkarrekin

23 Gutarren argazkiak
eta historiak

24 Agenda eta iradokizunak

BEGIRA

KOLABORATZAILEEN TALDEA;
Nora Altube, Roberto Mendi, Iván García, Nerea Zallo,
Irene Moreno, Edurne Unzueta, Romu Artetxe

2005eko azaroa
Edizioa: Grupo ULMA
Diseinua: AZK Taldea
Inprimategia: Gertu S. L.

Grupo ULMA S. Coop.
Otañui pas., 3 - 13 posta kutxatila. 20560 OÑATI
Tel.: 943 034900 Faxes: 943 780917
e-mail: begira@ulma.es



POGU III, etorkizun bateraturako konpromisoa

Hamarkada bat baino gehiago igaro da ULMA Taldeko bazkide guztiak Osoko Batzarrean lehen aldiz bildu ginenetik etorkizunera begira guztiontzat egokia izango zen aukera bateratu bat eztabaidatzeko eta adosteko. 1993. urteko abenduaren 22an, ULMA Taldeko bazkideek POGU proiektua onartu genuen ekitaldi formal baten bidez eta, hala, konpromiso bateratua sustatzeko eta arautzeko tresna bat sortu zen, helburu zintzoa zuena: etorkizunari begira enplegua eta aberastasuna sortuko zituen proiektu sozioenpresariala eratzea. Beste garai batzuk ziren, krisi ekonomikoa larria zen, eta une erabakigarria zen: MCCn txertatzeko aukera genuen, baina horrek ULMA Taldearen proiektu hasi berriaren edo Mondragon Talde Kooperatibotik kanpoko etorkizunaren desagerpena ekarriko zuela uste genuen. Une hartan, gure bazkideek POGU proiektua hautatu zuten, eta horrek etorkizunari begira irudikatzen zuen bidea elkarrekin egitea erabaki zuten. Egun horretatik bide luzea egin dugu elkarrekin, idealez eta konpromisoz betetako une haietan pentsaezina zirudien bidea. Bidea gogorra izan da, baina merezi izan du. Lorpen kuantitiboak handiak izan dira, eta horien adierazgarri dira enpleguaren bilakera bikaina, salmentak eta emaitzak; baina, horiez gain, ULMA Taldeak erakunde berritzaile, lehiatsu eta inguruarrekiko konprometitu gisa lortu duen onespina azpimarratu behar genuke, eta kooperatiben munduan ezinbesteko erreferentzia gara askorentzat. Zalantzarik gabe, eta askotan jabetu ere egin gabe, POGU proiektua elementu erabakigarria izan da lankidetzaren erreferente gisa eta ULMA Taldeak irudikatzen duen proiektu sozioenpresarialaren garapenerako esparru gisa. Packaging negozioko Gerente nintzen aldetik, POGU I proiektuaren proposamenean aktiboki parte hartzeko aukera izan nuen. Lan neketsua izan zen, lankidetzaren eta elkartasun idealak zituzten eta ideal horiek negozio sendo eta lehiakorretan oinarritu behar zutelako pentsatzen zuten pertso-

na gogotsu eta konprometituek zorroztasunez egindako lana. Osoko Batzarrean proposatu eta onartu zen ereduak, bere garaian, alderdi sozialaren eta enpresarialaren, norbanakoaren interesaren eta guztion interesaren oreka irudikatu zuen, eta zalantzarik gabe, oreka horretatik sortzen dira guztion ongizatea bermatzen duten negozio indartsuak.

XXI. mende honen hasiera oso konplexua izan da, eta inoiz baino gehiago, etorkizuna aurreikusteko eta ULMA Taldearen antolamendu egiturak nahiz euskarri eta lankidetzarako mekanismoak errealitate berrietara egokitze beharra dugu, gure printzipioak eta balioak ahaztu gabe betiere.

Oro har, ULMA Taldearen lankidetzaren zuzentzen duten oinarriko printzipioak, POGU I proiektuan formulatutakoak eta POGU II proiektuan berretsitakoak –azken horretan, gainera, ULMA Taldean gaur egun indarrean dauden MISIOA eta politikak ezarri ziren–, gure filosofia sozioenpresarialaren funtsezko zati direla uste dugu, baina, aldi berean, gure negozioetako eguneroko kudeaketatik urrundu egin direla pentsatzen dugu, eta bazkide askok ez dute horien garrantziaren eta funtzionamenduen berri. Hala ere, oinarriko printzipio horiek gure negozioetako kudeaketan praktikoki nola

**POGU III proiektuaren
azken helburua desafio
berriei erantzuteko
egokitzen jakitea eta
arrakasta handiko
erreferentzia
sozioenpresariala izaten
jarraitzea da**

Txomin García

ULMA Taldearen
Zuzendari Nagusia



islatzen diren aztertzen badugu, hasiera batean pentsa dezakeguna baino garrantzi handiagoa dutela egiaztatu ahal izango dugu. POGU III proiektuak oinarriko printzipio horietatik ondorioztatutako Lankidetzarako Tresnak zuzentzen ditu eta negozioetako errealitate berrietara egokitzen ditu, horien garapena sustatzeko orduan eraginkorrak izaten jarraitzeko.

ULMA Taldeko negozioiek aurrera egiten duten neurrian, berritzen diren neurrian eta aukerak probetxatzeko gai diren neurrian, Taldeak berak ere aurrera egingo du, eta ilusioa eta enplegua sortuko dituen etorkizuneko aukera izaten jarraituko du. Horretarako, Taldeak negozioetarako aukera berriak sortzeko gai izan behar du, hurrengo urteetan gure inguruak eskatuko duen enpleguari erantzuteko.

POGU III proiektuaren bitartez egindako proposamena bi urte luzez egindako lanaren emaitza da; horrelako proposamen batek eskatzen duen zorrotasunarekin egindako azterketa lan sakonaren eta horren inguruan sortutako eztabaiden emaitza. POGU III proiektuak ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren nahiz negozioetako Artekaritza eta Zuzendaritza Kontseilu guztien babesa lortu du. Adostasun maila hori lortzea ez da erraza izan, eta konpromisotik eta irmotasunetik egiten diren proposamenak ere ez dira errazak. POGU III proiektuaren arrazoia ULMA Taldeak irudikatzen duen proiektu sozioenpresarial honi eusteko borondatea dagoela da, baina hasieratik jakin dugu gure proiektuko ideal eta lorpen handienak arlo sozialaren eta enpresarialaren arteko orekaren bitartez lortuko direla eta, zalantzarik gabe, lorpen horiek konpromiso handiko pertsonen gidatutako negozio sendo eta indartsuetan oinarritu behar dutela.

Proposamena eginda dago, eta lortutako adostasunak ULMA Talde osoarentzat aukerarik onena dela bermatzen du. Osoko Batzarrek erabakiko du, beti bezala, bazkideok baitugu azken hitza...

ULMA Hormigón Polímero nazioarteko hainbat azokatan

■ Merkatu berrietara hedatzeko asmoz ULMA Hormigón Polímero negozioa garatzen ari den internazionalizazio-politikaren barnean, erabili duen estrategietariko bat sektorean erreferente diren azoka batzuetan parte hartzea izan da.

Urteko azken lauhilekoan, eraikuntzako nazioarteko azoka askotan parte hartu du erakusketarien artean, besteak beste, Frantziako **Batimat** azokan (475.000 bisitari eta 2.665 erakusketari), Italiako **Saie** azokan (168.000 bisitari eta 1.900 erakusketari) eta Portugalgo **Concreta** azokan (85.000 bisitari eta 1.200 erakusketari).

Duela gutxi izan da Parisko **BATIMAT** azoka, (azaroaren 7tik 12ra), eta bertako erakusmahaiaren eraikuntzaren sektorerako hainbat aukera pertsonalizatu aurkeztu ditu, gure bi negozio-lineatan: Eraikuntzarako aurrefabrikatua eta Drainatze linealean. Lehen aldiz hartu du parte negozioak erakusketarien artean. Helburu nagusiak azoka horretan sartzea, merkataritzan gure lekua sendotzea eta Frantziar kalitatearekin eta berrikuntzarekin lotuta dugun irudia zabaltzea izan dira. Horrez gain, Italian, Bolonian zehazki, urriaren erdialdera **SAIE** azoka egin da, eta herrialde horretan dugun banatzailearen laguntzarekin, Drainatze Linealeko gure gama osoa azaldu dugu. Kanalen familiak erakutsi dira bertan, besteak beste: F saila –ibilgailu astunak ibiltzen diren ingurueterako kanalak–, U saila –oinezkoen inguruetan maldak txertatzeko kanalak– eta SELF familia erakutsi dira –oinezkoen ingurueterako, barruko kaleetarako edo aisialdiko ingurueterako oso egokiak–.

* Aurreko edizioetako datuak.

Azkenik, baina azkena izateagatik inolako garrantzirik galdu gabe, urrian Oportoko **CONCRETA** azokan ere izan gara; kasu honetan Aireztatutako Fatxadak erakutsi dira, eta helburu nagusia eraikuntza-sistema horren abantaila buruz informazioa ematea izan da, izan ere, Eraginkortasun Energetikoak eta Eraikuntza Iraunkorrak bat egiten baitute, sistema honek erabiltzen duen polimero hormigoia eta isolamendu termikoari esker. Aireztatutako fatxaden proiektuko taldeak eskaintzen duen kudeaketa integrala ere azpimarratu zen, izan ere, honen barnean plaken fabrikazioa, proiektuaren azterketa eta obren instalazioa sartzen baitira.



Boloniako "SAIE" azokaren xehetasun bat.


ULMA Hormigón Polímero, merkatuko ERREFERENTZIA

"Saiatzen eta arretaz jokatzeko jarraitu behar dugu."

> Duela 10 urte baino lehenagotik, ULMA Hormigón Polímero eraikuntzaren merkatuan polimero hormigoia erabiliz eraikitze aurrefabrikatuak sartzen joan da (leiho-isurkiak, horma-txapelak, ateburuak etab.)

Lan horrek eman du emaitzik: ohituraz erabiltzen ziren beste material batzuen aurrean (harri artifiziala eta ledo naturala, aurrefabrikatutako hormigoia, zeramika, marmola etab.), sendotu egin baita material hau. Gero eta gehiago dira beren eraikuntza-proiektueterako material hori eskatzen duten arkitektoak ere. ULMA Hormigón Polímero negozioak aurrera egin du pixkana, eta merkatuan leku sendoa betetzera iritsi da. Horrek ez du esan nahi bidea erraza izan denik, edo gure ahaleginak jada alde batera utz ditzakegunik. Azken urte hauetan lehiakide batzuk agertu dira, txikiagoak badira ere, beren produktuak (leiho-isurkiak, horma-txapelak, xurrutariak, etab.) ULMAren formak eta dimentsioak kopia egin dituztenak. Baina batez ere azken bi urteetan (polimeroa finkatzen doan neurrian) eta penintsulako hainbat

tokitan, nabarmenkiago sumatu da tokiko edo eskualdeko lehiakide berrien lehia hori, aurreikus zitekeenaren arabera. Salbuespenak salbuespen, polimeroa egiten duten enpresa horietatik gehienek profil bera betetzen dute. Harri artifiziala eta aurrefabrikatutako beste material batzuk egiten dituzten enpresa txikiak dira, eta egoera nolakoa den ikusita eta ahal duten neurrian, beharrezkoa iruditu zaie makinaría erosteko eta instalatzeko inbertitzea, horrela, polimero hormigoia egiten hasteko; hori bai, muga batzuk kontuan hartuta. Guztietan ikusten da gauza bat argi eta garbi: ULMA Hormigón Polímero eredu da, eta baita mendearen hartu beharreko aukaria ere. Guztien erreferentzia ULMA da, eta horregatik, honen ereduak, erreferentziak, koloreak eta jarduteko modua kopia egin dituzte, prezio lehiakorrek onartuz; prest daude, gainera, ULMAk uneren batean izan dezakeen ahalaldiaz baliatzeko: azken urte-erako entrega epe estuak, adibidez, SPE-2 linea abian jarri aurretik batik bat, eta abar. Zorionez, merkatuak kontuan hartu ditu hainbat urtean egin dugun ibilbidea, gure markaren iru-



Nicandro Falcó

Levante Hegoaldeko Ordezkarik Komertziala ULMA Hormigón Polímero, Koop. E.

dia, gure erantzuna eta zerbitzua; eta gauzak ondo egiten ari garela esan nahi du horrek. Baina aitortu beharra dago, eta gero eta argiago gainera, lehiakide horiek negozio honetarako mehatxu bat adierazten dutela. **Horrek ez dugula konfiantza gehiegirik izan behar eta arreta handiz jokatu behar dugula erakusten digu. Guztion lanari eta parte hartzeari esker, eraso horri aurre egin ahal izango diogu, eta merkatuko aurreneko lekuetan egoteak ematen digun abantailari eusteko aukera izango dugu, zalantzarik gabe.**

ULMA Handling Systems negozioak logistikaren sektoreko "lider marka" saria lortu du

■ ULMA Handling Systems lehen tokietan dabil, "Lider Marka" sarieran. Brasilgo IMAM erakundeak antolatzen duen sariketa da. Logistikaren sektoreko erabiltzaileek, bezeroek, erakundeek eta profesionalak diotenez, ULMA lider marka da "MINI LOAD TRANSJASOGAILUAK" kategorian. 15.000 inprimaki baino gehiagotan bildu dira sari hori eman dioten iritzi guztiak, eta garbi adierazten du horrek ULMA markak logistikaren sektorean duen izena.

"ULMA Handling Systems negozioak Brasilen merkataritza jarduerari ekin zionean, automatizazio logistikoa ez zen oso ezaugarri komuna enpresa askorentzat" dio Marcos Passarellik, Brasilgo ULMA Handling

Systems negozioiko eragiketa saileko zuzendariak. "Zalantzarik gabe, sari hau lortzea azken urte hauetan egindako lanaren emaitza da, gure



markak merkatuan zuen tokia hobetzeko aukera izan baitugu", dio Passarellik.

Inprimakiak Grupo IMAMen ekitaldi askotan eta komunikabideetan banatu dira; ingeniartzita industrialarekin, mantentze-lanekin, garraioarekin eta logistikarekin lotutako enpresak eta profesionalak biltzen dituen Brasilgo elkarte bat da IMAM. Eta honen helburu nagusia sektoreko teknika eta erreminta modernoak zabaltzea da. Helburu hori lortzeko, aldizkariak, urtekariak eta gidak argitaratzen ditu, eta logistikarekin lotutako hainbat azoka eta ekitaldi ere antolatzen ditu.

Sari banaketa abenduaren 1ean izango da, Brasilgo Sao Paulo hirian.

ULMA Agrícola negozioaren Mexikoko filiala

Mexikoko Estatu Batuetan dagoen filial honekin, ULMA Agrícola negozioak Mexikoko Errepublikako hainbat estaturi æMexiko, Sinaloa, Queretaro, Guanajuato, Michoacan, Jalisco eta Chiapasæ erantzun egokia eta azkarra eman nahi die. Barazki ekoizle handiak dira guztiak, tomatearen, piperraren eta loreen sektoreetan bereziki. ULMA Agrícolaren ordezkariak 160 m² baino gehiago ditu: harrera gela, merkataritzagunea, bi bulego, ekitaldi aretoa eta batzar gela ditu. Gaur egun hiru lagun ari dira lanean bertan: Iker Larreategi Zaldia filialeko zuzendaria, Miguel Angel Pedroza muntaketa arduraduna eta Berenice Oseguera administraria.



Ulma Construcción y Agrícola de México, S.A. de C.V.
Vía Gustavo Baz Prada 305. Col La Loma - CP 54060. Tlalnepantla - Estado de México



Argazkian: Miguel Angel Pedroza, Iker Larreategi, Berenice Oseguera

ULMA Construcción negozioak instalazio berriak inauguratu ditu MADRILEN

■ Maiatzean, ULMA Construcción negozioak instalazio berriak inauguratu zituen Madrilén, Cobeña herrian, zehazki.

San Sebastián de los Reyesko bulegoetan eta Fuencarral eta Algeteko bildegietan zenbait urte egin ondoren, ULMA Construcción negozioak bulegoak eta biltegiak toki berean bateratzaren aldeko apustua egin du.

Horrela, edozein eraikuntza-proiektutan parte hartzen duten sailen koordinazioa eta bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua hobetu nahi izan dira.

Cobeñako instalazio berriek 50.000 m²-ko azalera dute gutxi gorabehera, eta 3.000 m²-ko eraikin bat dago bertan, 3 solairukoa, horietako bat lur mailaren azpian. Gainera, biltegi zaba-

lak ditu, eta baita 80 ibilgailuentzako aparkalekua ere.

Ordezkaritza horretako kideek urte askotan egin duten ahaleginari esker egin ahal izan da, urtez urte, errealitate bihur zedin gogoz saiatu baitira.

Inaugurazio-ekitaldian, kooperatibako lehendakariak, José Luis Madinagotiak, esker oneko hitzak eskaini zizkien bertaratutako guztiei, eta proiektu horretan aritu diren eta parte hartu duten pertsona guztiak, uinak eta egoerak gogoratuz, ibilbide historiko bat egin zuen. Ekitaldi horretan bertan, ULMA Construcción negozioko gerenteak, Carmelo Bilbaok, eskerrak eman zizkion Erdialdeko Eskualdeko zuzendariari, Nicolás Garcíari, eta honen talde osoari, hainbat urtetan



egin duten ahaleginagatik; eta aurrera begira orain arte bezala lanean jarraitzera bultzatu nahi izan zituen, horrela Estatuko merkatuan lider tokiari eutsi diezaioten urte askotan. Nicolás Garcíak, berriz, emozio handiko hitzak eskaini zizkien, bai gerentziari eta baita bertaratu ziren guztiei ere.



ULMA Hormigón Polímerok ordezkaria izango du Frantzian, lehen aldiz

Irailaz geroztik, ULMA Hormigón Polímero negozioak badu Frantzian Ordezkaritza Komertziala, lehen aldiz. Stéphane Lecante da, jatorriz Lyongoa den frantziarra, 36 urtekoa eta bi ume-
ren aita. Frantziako banaketa kate nagusiekin esperientzia handia duen gizona da. Frantziako hego-ekialdeko eskualdeaz arduratuko da, eta Lyondik

Marseillara bitarteko lurraldeetan arituko da. ULMA Hormigón Polímero negozioak azken urte hauetan ahalegin eta inbertsio handiak egin behar izan ditu. Planteatutako zenbait helburu lortu dira, eta horietako bat nazioarteko merkatuetan gure presentzia areagotzea izan da. Portugalgo merkatuarekin hasi ginen, eta negozioaren filiala

2002. urtean ireki zen Lisboan; orain Frantziarako lehen ordezkaria kontratatu da. Herrialde horretan duela bi urtetik ari gara lanean, proiektua gauzatzeko ahaleginean. Lehenengo azterketa bat egin zen, horrela, merkatuaren errealitatea ezagutzeko. 2004. urtean, Frantziako kate handienetarikoa batekin, **Point P** katearekin, harremanetan hasi ginen, eta lehenengo salmentak urte horretan bertan lortu ziren. Bezero horrek argi azaldu zigun beharrezkoa zela herrialdean modu jarraituan aritzea, horrela, bertako biltegiei zerbitzu zuzenagoa eta hurbilagoa eskaintzeko eta bertan sartzeko bidea prestatzeko. Frantziako merkatuetan sartze horrek emango ahal ditu bere fruituak, edota nazioarteko merkatuan hazten jarraitzeko behar ditugun euskarri sendoak.



Korronte Alternoko Teknologia edukiera handiagoko orgetara iritsi da

■ Gaur egun, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak Mitsubishi orga elektriko kontrapisatuen gama zabala eskaintzen du, Korronte Alternoko Teknologia dutenak. Orain arte Korronte Alternoen abantailak bereganatuta zeuzkaten orgak 2000 kg-tik hasi eta 3500 kg artekoak ziren, eta bazituzten ezau-garri berezi batzuk: potentzia handi-agoa, termikoen parekoa eta funtzionamendu leuna, zorrotza eta isila; energia aurrezten zen hauei esker, eta mantentze kostuak nabarmen gutxiagotzen zituzten.

Korronte Alternoko orgen aukera zabala da: trizikloak eta lau gurpileko orga trinkoak, 48 voltekoak eta 1600 kg-tik 2000 kg-ra arteko ahalmena dutenak, eta intentsitate handiko aplikazioetara zuzendutako

ereduak, potentzia handiagoa eta barruko aplikazioetan inguru garbietan lan egitea eskatzen dutenak; eskari horiek guztiak ondo betetzen dituzte 80 volteko lau gurpileko orga elektrikoek, 2000 kg-tik 5000 kg-ra arteko ahalmena baitute. Beraz, sektoreko enprekin alderatuta, Korronte Alternoen kalitateko aurretiko orgen multzo bikaina eskaintzen duen enpresa bakarrentariko da ULMA Carretillas Elevadoras.

Gama berri horrek bezeroarentzako abantaila ugari ditu, Kontrol Sistema Elektroniko Adimenduna, adibidez; orga aplikazio eta gidari bakoitzaren ezaugarrietara molda daiteke horri esker, egin beharreko zeregin bakoitzerako eskularru baten bidez doitu. Gainera, eredu

guztietan bakoitzaren osagaiak erraz eta azkar maneiatzen dira, piezak ondo zaintzeko, masten diseinuan kontuan hartu da gidariaren kabinatik inguru osoko ikusmenak ona izan behar duela, diseinua ergonomikoa da erabat, eta txertatu diren segurtasun neurriei esker erabiltzaileak eroso eta segurtasun osoz erabil dezake orga.

Produktu eta teknologia aplikatuaren esparruko berrikuntza horri esker, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak aurrea hartu dio berriro gizartearen eskariari eta apustuari, lan ingurunean energia garbiak erabiltzearen alde egiten baitu, gero eta argiago, eskuratutako ekipoei esker produktibitateari eta errentagarritasunari kalterik egin gabe, hala ere.



Prebentzioa, ULMA Handling Systems nego- zioaren oinarriko kultur elementu



ULMA Handling Systems negozioaren kulturaren talde osoaren eta azpikontratutako langileen segurtasuna eta osasuna txertatu dira, eta horri esker, OHSAS 18.001 araudiaren ziurtagiria lortu du. Ondean AyC aholkularitzak egiaztatutako ziurtagiri hori lortzeko bidea eman duten jarraibideak asko dira: osasun eta arrisku faktoreak identifikatzea, sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea, osasuna eta segurtasuna etengabe hobetzen dela ziurtatzeko helburuak, helmugak eta programak zehaztea, edota sistema berrikustea eta ebaluatzea. Ohitura onak izatearekin lotutako arau bat da OHSAS 18.001, eta kudeaketa sistematiko eta egituratu baten bidez, lantokian osasuna eta segurtasuna hobetzen dela ziurtatzeko asmoari erantzuten dio. Sistema horren helburu nagusia lantokiko arriskuei aurrea hartzea eta arrisku horiek kontrolatzea da, eta baita etengabe hobetuz arrisku horiek ahal beste murriztea ere. Lortutako ziurtagiriari esker, bai langileek eta bai hirugarrenek argi eta garbi jakingo dute enpresak lantokiko osasuna eta segurtasuna babesten dituela, arriskuei aurrea hartuz.

"Azken batean, gure helburu nagusia prebentzioaren kultura ULMA Handling Systems negozioko langile eta azpikontratutako guztiek beren gain hartzea da", dio Maier Alberdik, ULMA Handling Systems-eko Lan Arriskuen Prebentzioko teknikariak. "Laneko Arriskuen Prebentziari buruzko eskuliburua landuz hasi ginen: bertan zehazten dira prebentzioaren arloan lanpostu bakoitzean nabarmendu diren funtzioak, ardurak, prozedurak eta jarduerak-prozesuak, eta baita lanpostu bakoitzean arriskuei aurrea hartzea zuzentzen diren euskarri informatikoak ere. Horrez gain, oro har prebentziari buruz eta zehazki lan egiten dugun sektoreak dituen arrisku zehatzei buruz prestakuntza jarduerak ere antolatu dira", azaldu digu Maier Alberdik.

Hurrengo urte hasieran **aurkeztuko du ULMA Taldeak bere irudi korporatibo berria**

■ Hurrengo urteko lehen hiruhilekoan taldea gaur egun komunikazioaren arloan lantzen ari den elementu, programa eta euskarri berriak agertuko dira pixkana.

Duela zenbait hilabetetik hona euskarri horiekin ari dira lanean, gure bazkideen laguntzarekin. ULMAko langileek beraiek azalduko dute taldearen errealitatea, garai hauei dagokien estiloarekin eta modu pertsonalean eta hurbiletik, horrela, enpresan duten konfiantza sustatzeko.

Eremu eta maila guztietan enpresa sustatzeko erreminta eraginkor bihurtzea lortu nahi da, eta nola ez, baita taldearen komunikazio helburuak betetzeko gai izatea ere; eta horrez gain, negozio bakoitzak dituen komunikazio-materialetarako erabilgarri izatea ere lortu nahi da. noski.

Iruditan, taldearen ikus-entzunezko programa berrirako beren irudia erabiltzen utzi diguten bazkide batzuk ageri dira.



ULMA Construcción, segurtasun-azpilotan ziurtagiria eskuratu duen lehen enpresa

AIDICO Eraikuntzako Institutu Teknologikoak, eraikuntzaren sektorean produktuen ziurtagirietan espezializatutako erakundeak, CD marka eman dio ULMA Construcción negozioari, SARE segurtasun azpilen sisteman.

Ziurtagiri horrek CV marka erabiltzeko eskubidea eman dio ULMA Construcción negozioari, eta garbi uzten du horrek horrelako babes kolektiboa ziurtatzen duen Estatuko lehen enpresa dela; lehengaiak hartzen direnetik produkzio prozesua amaitu arteko bide osoa hartzen du, gainera.

Ziurtagiri hori osatzeko (urtero berri-tuko da) hauek egin dira, besteak beste: autokontrolako erregistroak (lehengaiak, fabrikazio-prozesua eta bukatutako produktuak), kontraste-entseguak (kontrol dimentsioak, ikus-azterketa, entsegu dinamikoak), eta kalitate sistemaren auditoria.

SARE segurtasun-azpila babes kolekti-

boko sistema bat da, (T motako Segurtasun Sarea, UNE-EN 1263-1en arabera), eta batik bat eraikuntza lanetan erabiltzen da, forjatu ertzak babesteko.

Ohiko "txardango"en sistemarekin alderatuta, abantaila nabarmenak ditu: babes-posizio horizontala eta bertikala ditu, eusteko autonomia eta independentzia ditu, eta gainera, harrera egiteko azalera handiko gunek bat du.

Euskarriaren egitura diseinatzerakoan, kolpe bat izanez gero deformazio plastiko onena izateko moduan egin da. Horrek eta sarearen malgutasunak halako poltsa efektu bat sorrazten dute; pertsonaren edo gauzaren bat eroriz gero, barruan hartzen du eta erorketa bera leundu egiten du, bertan atxikita gelditzen da, eta ez dago arriskurik inor edo ezer indarrez kanporatzeko eta ezta metalezko elementuren baten edo eraikinaren kontra jotzeko ere.



Ezaugarri teknikoak:

- *Babes-altuera maximoa:* 6 metro.
- *Babes-zabalera:* 3 metro.
- *Forjatuan onar daitekeen lodiera:* 15 cm-tik 80 cm-ra.
- *Euskarrien arteko distantzia:* 2,5 eta 4 m.
- Ziurtatutako sistema, UNE-EN 1263-1 arauarekin bat datorrena (bi entsegu egin dira, arazorik gabe; 100 kg-ko esfera bat erabili da, sarearen erdian eta gain-jarrita 7 m-ko altueratik).
- Garabi baten bidez muntatzen da, baina eskuz ere egin daiteke.

Arantzazurako igoeraren bederatzigarren edizioa

Aurten ere, ULMA Packagingeko langile txirritulariek Arantzazuko igoeraren bederatzigarren ekitaldia ospatu zuten. Parte hartzaileen kopuruak errekorra hautsi zuen aurtengoan ere, 98 lagunek parte hartu baitzuten guztira. Proba amaitu ondoren, bazkaria egin zuten, eta txirritulariez gain, gainerako lankideek ere parte hartu zuten. 105 lagun bildu ziren guztira. Bazkariko giroaz gozatu zuten guztiak, eta pantaila erraldoi batean aurreko edizioen laburpen bat ikusi ahal izan zuten.



Sailkapeneko lehenengo hamarren denborak:

1	Joseba Luis Urzelai	22' 45"
2	Ekaitz Osa	23' 51"
3	Anartz Murguzur	24' 00"
4	Aritz Biain	24' 00"
5	Asier Elkorobarrutia	25' 38"
6	Iker Manso	25' 58"
7	Andoitz Gorrotxategi	26' 08"
8	Josu Odriozola	26' 20"
9	Iban Uribeberria	26' 40"
10	Unai Pedregal	26' 57"



Victorio Luzuriagak errentamendu kontratua berritu du ULMA Carretillas Elevadoras negozioarekin

■ Tafallako Victorio Luzuriaga SA automozio enpresak alokairu kontratua berritu du ULMArekin, eta 25 eskorga termiko baino gehiago eskuratu ditu; 1500 kg-tik 7000 kg-ra arteko zamak erabiltzeko ahalmena duten eskorgak dira. Alokairu erregimenean eskuratutako eskorgek ordeztuko dituzte duela 4 urte ULMAri alokatutakoak. Kontratua berritzeak ULMAko taldearen lana estimatzen dela adierazten du, batik bat enpresak urte horietan eskaintako aholkularitza eta salmenta osteko zerbitzua; gainera, garbi uzten du Mitsubishi eskorgak luzaro irauten dutela eta fidagarriak direla, izan ere, kasu zehatz honetan lan intentsitate handia jasan baitute: eguneko 3 eta 4 txanda, galdaragintza eta

altzairugintza eremuetan; eta eraginkortasun eta segurtasun osoz erantzun dute. ULMA Carretillas Elevadoras negozioak bezeroari bere flota ondo kudeatzeko eskaini dion aholkularitzaren bidez, hauen erabilera areagotu egin da, eta mantentze-gastuak murrizteaz gain, kudeaketa horri dagozkion administrazio-kostuak ere jaitsi egin dira. ULMAk bezeroei zerbitzu oso eta bateratua eskaintzen die: erabilera ordu bakoitzeko kostua, produktibitatea eta itzultzeko aukera aintzat hartuta, erabakiak hartzen ditu, ekipoak toki berrietan kokatzeko, zokoratzeko, ordeztzeko edota erabiltzen jarraitzeko beharri buruz aholkuak ematen ditu, eta galera eta irabazien kontuan eskorgek duten inpak-



tuari buruzko iritzia ematen du, eskorgen flotak erabiltzerakoan ahalik eta errentegarritasun handiena izan dezan, horrela aurrezten dena aintzat hartuta.

Euskara planak bultzatuz

"Urte batzuk igaro dira lehenengo aldiz, laurogeita hamargarren hamarkada hasieran, hain zuzen, EAEko hiru enpresetan euskara planak martxan jarri zirenetik; horrela, gaur egun ehun enpresa baino gehiagotan ditugu planak abian. Irakaskuntzan, komunikabideetan eta beste arlo batzuetan euskara bultzatzeko egiten ari den ahalegina lan mundura ere iritsi da, beraz; izan ere, euskararen erabilera sendotu nahi bada, ezinbestekoa da belaraldi berriei euskaraz lan egiteko

aukera ematea. Arlo horretan, Debagoiena erreferente garrantzitsua izan da; kooperatibismoaren sorleku den eskualdean, oro har, eta Oñatin, zehazki, euskararen ezagutza eta erabilera handia da, eta asko dira lantokietan euskara bultzatzeko egin diren ekimenak: esaterako, ULMA Taldeko negozio guztietan 2003. urtetik aurrera euskararen egoera aztertzeko diagnostikoa egin da eta epe horretan bakoitzari egokitutako helburuak jarri dira. Gaur egun, negozio batzuetan bi urte

egingo ditu euskara planak eta beste batzuetan hastear daude edo epe motzean hasiko dira".



Irudian Iñaki Ugalde, Euskara Planen koordinatzailea ULMA Taldean.

ULMA Packaging negozioak bulego berriak zabaldu ditu Valentzian

ULMA Packaging-ek bulego berriak inauguratu zituen urriaren 24an Valentzian. 130 m²-ko azalera dute bulegoek.

10 lagunek egiten duten lan Levanteko inguru horretan, bezeroei azkar eta modu pertsonalizatuaren erantzuteko zeregina betez. ALFAFAR udalerrian (Valentzia) dago ULMA Packaging, eta bezeroei erantzuna emateko bi eremu bereizi dira beronen egiturari. Hauek dira bi eremu horiek: ontziratze-sistemei buruzko aholkularitza, eta salmenta osteko zerbitzua. Barne egiturari dagokionez, hiru atal bereizten dira ordekaritzan: Administrazioa, Merkataritza eta Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua. Eremu geografikoari dagokionez, enpresaren jardunak Valentzia ez ezik inguruko probintziak ere barne hartzen ditu, Castelló, Alacant, Murztzia, Albacete eta Teruel. Azkenik, hauxe esan nahi dugu: inguru honetako bezero kopurua aintzat hartuta, ULMA Packaging-ek bai Merkataritza sailean eta bai Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan espezializazio-programa handi bat abian jartzeko aukera izan du. Programa horri esker, gure merkatariek eta teknikariek espezializazioan sakonduko dute. Eta ondorioz, ULMA markari lehiakideen aurretik lehen lekuetan jarraitzen lagunduko dio.



Irudian, ULMA Packaging-en Valentziako bulegoen eraikina

ULMA Agrícola negozioak 4 hektareako instalazio bat egin du Mexikon

■ ULMA Agrícola negozioak Mexikoko Errepublikako nekazaritzak indar handia duen inguru batean 40.000 m²-ko instalazio bat egin du, koloretako piperorroak landatzeko. Instalazioak 20.000 m²-ko berotegi bat, beste bi berotegi (9.200 m²-koa bakoitza), eta 540 m²-ko hazitegi bat, landareñoak ernatzen prestatua.

Berotegiak multikapera ereduak dira, kanal azpian 4,5 metroko altuera dutenak, eta superzenit ereduak aireztapen zenitalez hornituta daude; aldiz, albokoak eta aurrekoak biribilgarriak dira. Aireztapen guztiak motordunak dira, eta tarte guztiak afidoen aurkako mailekin babestuta daude (10x16 eta 10x20 neurrikoak). Nabarean barneko klima kontrolatzeko, instalazio guztiek hainbat ekipamendu dituzte: kamera puzgarria, aire beroko berokuntza, airea birarazteko gailuak, hidroponiako ureztapen ongari-duna, hezedura sistemak eta automatismoak.



HUBTEX orga berezien salmenten balantzea oso positiboa izan da

■ Duela hiru urte, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak lankidetzeta eta banaketa hitzarmen bat sinatu zuen HUBTEX marka alemaniarrarekin eskusiban, bezeroen behar logistikoei soluzio integrala emateko.

Orain arte, ULMAk 2005erako HUBTEX ekipoak saltzeko zehaztutako helburu gorenak ondo bete ditu, aurreko urteetako salmenta kopurua hirukoiztu baitu; alde batetik, merkataritza-sareak ekipo horien ezaugarriak eta abantailak hobeto ezagutzen dituelako izan da hori; eta bestetik, zeregin eta aplikazio bakoitzerako orga egokia izateak duen garrantzia gero eta garbiago ikusten duelako espainiar merkatuak. Alboko kargekin lan egiten duten HUBTEX orgak modu eskusiboan banatzen hasi zen ULMA, eta norabide anitzeko, bi norabideko eta lau bideko orgak eskaintzen hasi zen, alboko kargekin lan egiten zutenak guztiak; orga hauek oso egokiak dira zurarekin, aluminiorekin, metalarekin edota plastikoarekin lan egiten duten enpresetarako, izan ere, korridore luze eta estuak edota toki txikiak dituzten

biltegietan karga luzeak mugitzeko behar duten erantzuna eta babesa eman baitie ULMAk, bere aholkuen bidez. Dena den, bi urte hauetan ULMAk bezeroen esku jarri ditu barruko lanetarako beste HUBTEX makina batzuk ere: erretraktilak edota eskaerak pilotzen dituztenak, adibidez, kargak mugitzeko gaitasun handiagoa edo norabide askotan mugitzeko gaitasuna eskaintzen dutenez, barruan erabiltzen diren ohiko ereduak baino abantaila handiagoak baitituzte.

Aurtengo urtean merkaturatzen izan duen harrera paregabe horretan eragin zuena izan du HUBTEX orgak azoka espezializatueta aurkezteak, Maderalia, SIL edo Construmat azoketan, adibidez; baina zeresan handia izan du ekipo berezietan merkataritza sareari euskarri egokia eskaintzeko produktu-departamentuan aplikazio logistikoe-tako teknikari bat sartzeak ere. Hala ere, izen handiko enpresentzat, Fagor enpresentzat edo CAFentzat, adibidez, erreferentzia nagusia sektoreko beste enpresa batzuekin izan dugun esperientzia ona eta bezeroen gogo-



betetzea izan dira, bi enpresa horiek HUBTEX etxearen orgak eskuratu baitituzte, bai alboko kargekin lan egiten duten ereduak eta baita eredu erretraktilak eta pilotzaileak ere.

BA AL ZENEKIEN...

- ULMA Taldea aspalditik ari da Kirolgi Fundazioa babesten, eta horregatik, gipuzkoar taldeek gure probintzietan antolatzen dituzten kirol ekitaldi askotara gonbidatzen gaituzte. Akaba Bera Bera (emakumeen eskubaloia taldea), Bidasoa (Eskubaloia), Gipuzkoa Basket (Saskibaloia), Spyro Bera Bera (Errugbia), Txingudi Saskibaloia Elkartea (emakumeen saskibaloia taldea), Txuri-Urdin (izotz gaineko hockeya) eta Eibar (futbola) taldeetan edo kirol horietan interesatuta bazaude, jarri harremanetan Departamentu Nagusiekin (943 034900), eta hitz egin Mila Barrutiarekin. Eta galdetu gonbidapen horiek gordetzeko edo erabiltzeko aukeraz. Kirolgi fundazioaren helburua Gipuzkoan errendimendu-kirola garatzen laguntzea da. Kirol esparruko nahiz publizitateko lankidetzeta hitzarmenen bidez, Kirolgi fundazioak zuzenean eta zeharka eta bere hiru jardunbideen bidez 58 klub, 132 talde eta maila handiko 1.686ren bat kirolari babesten ditu. Baina fundazioaren esku hartzea ez da mugatzen kirol arlora eta ekonomia arlora soilik. Aitzitik, maila altuko 100 kirolari gipuzkoarri ere laguntzen die, unibertsitate prestakuntzan nahiz kirol prestakuntzan.

ULMA Handling Systems enpresak gaztelania-euskara hiztegi teknikoaren argitaratuko du

Enpresan euskararen erabilera sustatzea, sendotzea eta normalizatzea, horixe da ULMA Handling Systemsen helburuetariko bat, eta horregatik, gaztelania-euskara hiztegi teknikoaren argitaratuko du.

Aurtengo urte amaieran, sektoreko terminologia biltzen gogoz saiatu ondoren, ULMA Handling Systems-ek hiztegi teknikoaren kaleratuko du: 650 termino bilduko dira bertan, gutxi gorabehera. Hiztegiaren logistika-arekin, mantentze-lanekin eta kudeaketa informatikoarekin lotutako hitzak bilduko dira, eta papezko euskarriaren nahiz euskarri informatikoaren emango da argitara. ULMA Handling Systems-eko Euskara Batzordeko kideek izan

zuten arloko hiztegi hau egiteko ideia, horrela, taldeari terminologia euskaraz eman ahal izateko eta, horri esker, enpresan euskara erabiltzeko. Bilketa, itzulpen eta zuzenketa lanak ULMA Handling Systems-eko konpainia txiki askotako 5 lagunek egin dituzte, EMUNek, euskara plana sustatzera zuzentzen den kooperatibak, lagunduta. Hiztegi hori argitaratzea 2005eko Euskararen Kudeaketa Planaren barnean txertatzen da, eta plan horren barnean, besteak beste, Pertsonen Kudeaketa prozesuan eta ISO 9001 kudeaketa prozesuan euskara normalizatzeko egindako ekintzak nabarmendu dira.



ULMA FORJA Singapurreko azokan

ULMA Forja berriro ere Singapurreko azokan izan da, bi urtez behingo hitzorduari leialki erantzunez. Hodi eta klabeekin lotutako enpresen berrikuntzak ezagutarazteko antolatzen den azoka da. Helburu nagusia merkatu horretako bezeroei ULMA Forja egiten ari den inbertsioak ezagutaraztea da, inbertsio horiek belaunaldi altuko ijezkailu bat eskuratzera zuzendu baitira. Azokak izan dituen bisitariak ez dira asko izan, eta erakusketarien kopurua ere nahiko txikia izan da. Pasadizo modura, esan daiteke azoka honi ez diola zorteak begi onez begiratzen, aurreko bi edizioetan ere bisitari gutxi izan baitzuten. Duela lau urte, dorre bikien aurkako atentatua baino egun batzuk lehentxeago izan zen azoka, eta duela bi urte, berriz, gripe asiarrak zela eta, izua nagusi zela egin zen.



ULMA Construcción negozioak instalazio berriak ireki ditu Alemanian.

ULMA Construcción negozioak RODGAU-DUDENHOFEN-en (Alemania) ireki duen filialaren bulegoak ofizialki inauguratu zituen. Hasiera batean, Alemaniako egoitza Zentro Teknologiko gisa pentsatu zen, gero Alemaniako merkatu exijentean murgiltzeko. 2003. urtearen hasieran, ULMA Betonschalungen und Gerüste GmbH merkataritza bulego gisa hasi zen lanean, eta ordutik lanen pakete garrantzitsua kontratatzea lortu dugu; hala, herrialdeko baliabide osagarrien fabrikatzaile nagusietako bati aurre egin ahal izan diogu. Inaugurazio ekitaldian, Carmelo Bilbaok, ULMA Construcción negozioko gerenteak, babesa eta esker ona adierazi zizkion Peter Schnaitmann-i eta bere talde osoari, gaur egungo ildo beretik lan egitera bultzatuz, laster Alemaniako eraikuntzaren merkatuan erreferente berria izan gaitzen.



ULMA Construcción-ek SyV Dorrearen eraikuntzan parte hartu du

■ Torre SyV (Hotela eta Bulegoak) eraikinak, Carlos Rubio Carvajal eta Enrique Álvarez-Sala Walther arkitektoek diseinatuak, 236 metroko garaiera izango du. 59 solairu (6 solairu tekniko) izango ditu, bakoitza 1.600 m²-koa, eta horiei lur azpian 7.500 m² hartuko dituzten beste 6 solairu gehitu behar zaizkie.

Hiru segmentutan zatituta dago, eta segmentu bakoitzak lorategi bat du beheko solairuan, bereizten dituen.

Eraikinak bost izarreko hotel bat, luxu handikoa, hartuko du; hotelak dorrearen lehenengo 33 solairuak beteko ditu eta 500 gela izango ditu. Gainerako solairuetan bulegoak ezarriko dira.

Dorrearen egitura altxatzeko, Sacyr-ek ULMA Construcción negozioko enkofratuetaarako produktuak erabili ditu.

Hala, bada, lur azpiko sei solairuak eta lur gaineko lehenengo seiak CC-4 aluminiozko enkofratu horizontalarekin altxatzen ari dira.

Produktu hori ALUPROP aluminiozko zutabearekin batera erabiliko da, eta bi horiek obrako errendimendu handiak lortzeko pentsatuta daude.

CC-4 materialak lehiakideek eskaintzen dituzten produktuekiko duen abantaila bat lehenengo sarea muntatzeko eta gero panelak ezartzeko aukera ematen duela da.

Inguru perimetralen eraikuntza enkofratutik 90ºra irtenegiten da. Hori da CC-4 materialak eskaintzen duen beste abantaila bat: habeek eta zeharkakoek osatzen dituzten kaleen noranzkoa aldatzea, forjaketaren ertzeri ahal beste hurbiltzeko.

Materiala berreskuratzeko eta berriro erabiltzeko enkofratua kentzea oso erraza da, CC-4ren erorketa buruaren diseinuari esker. Hala, bada, buruaren ziria kolpatuz gero habeek, zeharkakoek eta panelek behera egingo dute, eta oso modu erosoan kendu ahal izango dira, beste nonbait berriro erabili ahal izateko.

Lehenengo fase honetan erabili diren ULMA Construcción negozioko beste produktu batzuk:

- > ORMA enkofratu modularra, horma eta zutabe angeluzuzenak eraikitzeko,
- > COMAIN, horma baxuak eta zapatak eraikitzeko,
- > CLR, zutabe zirkularrak enkofratzeko.

Seigarren solairutik gora egiturari eutsiko dion erdiko gunea egiteko, ULMA Construcción negozioko honelako etxe orratzak eraikitzeko teknologiarik aurreratuen jarri du Sacyr-en eskura, sistema AUTOIGOKARIA hain zuzen ere.

Teknika autoigokaria sistema hidrauliko batean oinarritzen da; sistema horrek multzoaren igoera modu automatikoan egiteko aukera ematen du, enkofratuaren eta masten mugimenduaren bitartez.

Sistema horrek, ENKOFORM V-100 hormetarako enkofratuarekin batera erabilia, garaiera handiko paramentu bertikalak eraikitzeko aukera ematen du.

Dorrearen gunearen sekzioa 4 aldiz aldatzen da egitura osoan, eta ULMA Construcción negozioko bulego teknikoak enkofratua egoera horretarako egokitu du obrarako garatutako berriazko proiektuan. Sacyr dorrea 2007. urtean amaitzea aurreikusitako da.





José Antonio Sáinz Alfaro

Donostiako Orfeoiaren zuzendaria

Donostiako Orfeoia 1896an sortu zen, gerora abesbatza izango zenaren enbrioia, 20 abeslariz osatutakoa, abestera Arrasaten izan zen Euskal Jaira joan zenean, hain zuzen. Gaur egun elkar-teak 35 edo 40 emanaldi eskaintzen ditu urtero, eta 187 orfeoilari ditu; horiei esker bizirik dirau oraindik jaiotzez duen filosofia: "euskal kantagintza zaintzea eta zabaltzea". Ohore handiko talde honen arduradun dugu Jose Antonio Sainz Alfaro, Donostiako Orfeoiaren zuzendaria, 1986tik egundaino.

"Musikarako zaletasuna berezkoa dugu"

Euskal Herrian betidanik egon da musikarako eta batik bat abesbatzarako zaletasuna. Zein da, zure ustez, kantagintza gure kulturaren hain errotua egotearen arrazoia? Orain dela 50-70 urte, parrokia bakoitzak bere abesbatza zuen eta, sarritan, lehenengo eta bigarren mailako hiletak lortzeko elkarrekin lehiatzen ziren. Eliztar ugari abesten zuten, eta hori izan daiteke horrenbeste abesbatza izatearen arrazoia. Hala ere, musikarako zaletasuna lehenagokoa da. Gipuzkoako elizetan dauden organoen kopurua da horren

lekuko. Beraz, baliteke musikarako zaletasuna berezkoa izatea.

┆
"Atzeraelikatzea da gakoa. Arrakastek hobetzerara behartzen gaituzte"
 ┆

Zer sekretu du Donostiako Orfeoiak hainbeste urtean bizitasunari eusteko, eta Europako abesbatza ez profesionalen artean onenetakoa izateko? Atzeraelikatzea da gakoa; bata bestearen atzetik arrakasta ugari izan dira, eta orfeoia hobetzen lagundu dute. Zuzendariak beren karguari luzaroan eustea da beste sekretu bat. Secundino Iraola 30 urtez aritu zen taldean zuzendari lanetan; Juan Gorostidi, 40 urtez; eta Antxon Ayestaran, 20 urtez.

Nola lor daiteke urtero 35-40 emanaldi eskaintzea, taldeko kide guztiak beste lanbide edo eginkizun batzuk dituztela kontuan izanda? Asko gara taldean, 180 abeslari, eta lankide diren abesbatzetako abeslariak zenbatuz gero, 200era irits gaitezke. Emanaldi bakoitzean 80-120 abeslariak parte hartzen dugu; beraz, "mirariz" bezala, txandakatu egiten dira abeslariak, hilero batz beste hiru emanaldi eskaintzeko. Horren guztiaren atzean antolaketa lan handia dago.

Donostiako Orfeoia Euskal Herriko enbaxadore nagusietako bat dela esan izan da. Ohore handia izango da zuentzako. Beno, guk abestu besterik ez dugu egiten; hala ere, egia da Donostiaren izena Londresera, Berlinera, Parisera edo Washingtonera eraman izan dugula.

Zer nolako harrera egiten dizuete? Ez da berdina toki guztietan. Berlinen, adibidez, kezkatu egiten dira, amateur talde batek maila emango ote duen pentsatzen hasten baitira, eta Aranda de Dueron, berriz, gu bertan izate hutsa jai bat da.

Ba al duzu gogoan pasadizo bitxiren bat? Bai, gogoan dut bat, 1986an, uste dut, Armeniako hiriburuan, Erevanen, Ayestaran zuzendari zela gertatutakoa. Aretoa jendez gainezka zegoen, eta kanpoan gelditu zen jendeak, Orfeoia entzun gabe gelditzeko asmorik ez eta, sarrerako atea bota zuten. Eta kultura ministroa pozik.

Orfeoiak horren ezagunak ez diren beste jarduera batzuk ere lantzen ditu, orfeoi txikia,

Antxon Ayestaran musika-tailerra edo biolinaren gela, besteak beste. Zein da horrelako jardueren helburua? Jarduera guztiak musikaren ingurukoak dira. Lantegian ohikoak ez diren metodoen bidez lantzen da musika-irakaskuntza; helburua etorkizuneko abeslariak nahiz entzuleak prestatzea da. Biolinaren gelan, ikuspuntu korala alde batera utzita, beste ikuspuntu batetik lantzen da musika, eta orfeoi txikia baliagarria zaigu geure burua elikatzeko.

Nola ikusten duzu euskal musika korala? Gorabehera ugariko 8-15 urtetako zikloak izaten ditu; abesbatzak hazi eta txikiagotu egiten dira. Gero eta zailagoa da abesbatzari eustea, aisialdia izugarri hazi baita. Abesbatza gutxiago daude, baina espezializatuagoak dira.

Bukatzeko, batzuetan esan ohi da belaunaldi berriak afarietan, ospakizunetan eta abar batean abesteko ohitura galtzen ari direla. Zer diozu horri buruz? Egia da galtzen ari dela, txikiteoa galtzen ari den bezalaxe. Gainera, gaur egun jendeak gero eta lotsa eta beldur handiagoa du barregarri gelditzeko. Hala ere, gaur egun erreperitorioa zabalagoa da, lehen inguruko folklorera mugatzen zen.

Azkenik, Jose Antonio, ezagutzen al duzu gure kooperatibingurunea? Zer dakizu ULMA Taldeari buruz? Bai, mundu guztiak ezagutzen du Kooperatiba Taldea; hala ere, ez dut ULMA sakonki ezagutzen. Batez ere, fatxadetan ikusten ditudan aldamiokin lotzen dut. Gogoan dut, orain dela urte batzuk ULMA Packaging-en egoitzan emanaldi bat eskaini genuela.

┌
**"Gipuzkoako
organoen kopurua
eta kalitatea
kontuan hartu
besterik ez dago,
probintzian
musikak duen
garrantzia
ulertzeko"**
└





José Luis Madinagoitia ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiko Lehendakaria

POGU III proiektua aztertzeko gure kooperatiben Osoko Batzarra egin baino egun batzuk lehenago Jose Luis Madinagoitiarekin, ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiko Lehendakariarekin, hitz egin nahi izan dugu, eta ikuspegi itxaropentsua eskaini digu Taldeak etorkizunari begira dituen desafioen aurrean.

"Taldearen proiektuan guztion ilusioa berreskuratzea jokoan da"

Azaroaren 25ean POGU IIIa aztertzeko Osoko Batzarra egingo dugu. Zer dago jokoan egun horretan? POGU IIan kooperatiben/egozien artean gertatu zen urruntzearen ondoren, Taldearen proiektuarekiko ilusioa berreskuratzeke eta Taldeko partaidetzaren kultura finkatzeko bidean aurrera egiteko aukera dugu orain. Horixe dago jokoan. Behin eta berriro esan dugu POGU IIak ez zuela gustura utzi Taldeko bazkideen zati handi bat, eta ordutik gaur arte igarotako urteek, POGU IIan oinarritutakoek, lehenago emaitzen birmoldaketan genituen disfunczioak zuzendu ez direla eta lankidetzazko mekanismoen eta pizgarrien aplikazioen artean nahiko egoera bidegabeak, hala nola pizgarri kolektiboa eta emaitzen banaketa (itzulkinak), gertatzen direla erakutsi dute. POGU III proiektuaren garapena POGU IIaren ondoren antzemandako haserreak eta ULMA Taldearen proiektuan etorkizunari begira aurrera egiteko beharrari emandako erantzuna izan da, Erakundearen eta bazkideen interesen arteko oreka bilatu nahian. ULMA Taldearen proiektuak etorkizuneko negozioen kaudimena, sendotasuna eta jarraitutasuna bermatu behar ditu.

Proiektu baten onspena baino gehiago dago jokoan, beraz; gure etorkizuna ulertzeko eta bidea elkarrekin egiteko modu baten aurrean gaudela esan daiteke. Jabetzen al gara horretaz? Hala da, POGU III proiektuak beste urrats bat ematen du ULMA Taldea ulertzeko moduari eta etorkizuna elkarrekin egiteari dagokienez. Negozioen beharrei eta, globalizazio prozesuaren, filialen sorreraren, promozio berrien garapenaren, beste enpresa batzuen erosketaren eta abarren ondorioz, bizitzea egokitu zaigun inguru konplexu honetan izango duten bilakaerari hobeto erantzuten dien eredu bat planteatzen du. Bestalde, negozio batzuetako bazkideak bi elkartasun mailatan jotzen ari dira (Taldeko negozio guztien artean lehenengo eta kooperatiba bateko negozioen artean gero), eta beste negozio batzuetako bazkideak lehenengo elkartasun mailan baino ez dira ari; horretarako irtenbidea ere planteatzen du. Beste alderdi garrantzitsu bat ere azpimarratu nahi nuke: aldaketa horren ondorioz, Taldea beste parametro batzuekin ulertu behar da, eta erakunde osatutako talde guztie-

tan alderdi batzuetan amore eman behar da, hala, beste bide batzuetatik iritsiko zaizkigun hobekuntzak lortzeko.

Gaur egun, ULMA Taldea finkatuta dago eta kohesioa handia da. Guztion ahaleginari eta sakrifizioari esker lortu da hori, baina nola ikusten da Lehendakartzatik Taldearen etorkizuna epe ertainean eta luzean?

Egia da ULMA Taldea finkatuta dagoela eta kohesio maila handia lortu dugula, beste erakunde askoren erreferentzia bihurtu gara. Kanpotik barnetik baino gehiago balioesten gaituztela esango nuke. Hori ez da txarra, nolabaiteko arrakasta lortu dela, baina oraindik gustura ez gaudela eta berrikuntza gehiago eta gaur egun lortu duguna hobetu nahi dugula adierazten baitu. Zalantzarik gabe, lortutako arrakasta talde osoaren ahaleginari eta ekarpenari esker izan da. Taldeak epe ertainean eta luzean izan dezakeen etorkizunari dagokionez, nahiko baikorra naiz berez, eta ULMA Taldearen etorkizuna ondo ikusten dut. Gure antolamendu eredua une honetan bizi dugun egoera aldakorren aurrean

egokitu egin beharko dugu, jakina, ezin baitugu iraganeko formetan gelditu, eta kooperatibaren oinarrizko printzipioak eta balioak eskaera berrietara egokitu beharko ditugu aurrera begira. Gure Taldeko negozioek sektore interesgarritan lan egiten dute, baina ezin dugu ahaztu sektore horietako bakoitzean lehen mailan egotea lortu behar dugula, eta horretarako punta-puntako teknologia izatea beharrezkoa da, merkatuekin harreman zuzena izatea, eta jarrera erosoetatik ihes egitea. Ekonomiaren globalizazioak irudimen eta sormen handiagorekin jokatzera eramango gaitu, merkatuetan nazioarteko lehiakortasuna gero eta handiagoa baita, eta indarra hartzen ari diren herrialdeei ere aurre egin beharko diegu. Etorkizuna ez da erraza, baina ilusioz eta borroka egiteko gogoz egin behar diogu aurre.

Beraz, etorkizuna zaila izango da, baina garrantzitsuena gure esku dagoela da. Zure iritziz, zein dira ULMA Taldearen desafiorik garrantzitsuenak etorkizunean? Bai, lehen esan dudan bezala, etorkizuna ez da erraza izango, baina, nire ustez, lan egiten dugun sektoreetan nahikoa gaitasun dugu produktuaren, zerbitzuaren eta merkatuaren errealitate berrietara egokitze eta gure gaur egungo tokinari eusteko edo toki hori hobetzeko. Horretarako, proiektuan gogoz lan egingo duten profesionalak behar ditugu. Egoera aldatzen ari da, eta gure inguru geografikotik kanpo dauden merkatuetan lan egiteko prest egongo diren gero eta pertsona gehiago beharko ditugu, etengabe bidaiatzen ariko diren pertsonak; alderdi horrek arduratu egiten nau eta etorkizunean aztertu egin beharko dugu.

Bazkide gehienek Taldearekin duten konpromisoa oso handia izan da beti. Ikuspegi historikotik begiratuta, gure taldeak hainbat une garrantzitsutan hartutako erabakiak egokiak izan direla onartu behar da... Egia esan, ULMA Taldearen ezaugarrietako bat une

garrantzitsuetan erabaki zailak hartu izana da. Nire ustez, erabaki horiek egokiak izan dira gehienetan. Kontuan izan behar dugu POGU proiektua, 1993. urtean MCCn ez sartzeko erabakiaren aurrean gure etorkizuna zehazteko beharri erantzuteko sortu zela. Beranduago, 2001. urtean proiektua eguneratu genuen eta POGU II sortu zen, aurreko puntu batean aztertu dudana. 9 urteren ondoren, MCCko partaide izateko aukera planteatu genuen berriro, baina orduan proposatutako baldintzak 1993. urtean proposatutakoenen oso desberdinak ziren, eta horri esker, gaur egun ULMA Taldea MCCko Dibisioetako bat da. POGU III proiektuari dagokionez, ziur nago hartuko den erabakia ere egokia izango dela.

Azkenik, ikuspegi instituzionaletik begiratuta, mezuren bat igorri nahi al diezu bazkide guztiei ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiko Lehendakariatik POGU IIIa aztertzeko Batzarra egin baino lehen? Gogoeta zintzoa egiteko eskatuko nieke bazkide guztiei, Taldeko proiektu orok elkartasun dosi handia eskatzen duela kontuan hartuta. Proiektuak aldaketa handia planteatzen du Bihurketa Faktorearen kontzeptuari dagokionez, eta egoera txarrean dauden negozioetan lan egiten duten langileei dirulaguntza ekonomikoa eskainiko die Taldeak, horretarako berariaz sortutako Lansarien Elkartasun Funtsaren bitartez. Bihurketa Faktorea eta Pizgarri Kolektiboa aplikatzeko errentagarritasun exigentziak negozio guztietarako homogeneoagoak izateko formulak bilatzen saiatu gara. Bestalde, NEGOZIOAN Taldearen Antolamenduaren Oinarrizko Unitatea ezartzen duen antolamendu eredu bat planteatu da. Pertsonalki, proiektu hau, negozioetako organo desberdinen arteko negoziazio ordu askoren emaitza dena eta negozio guztietako agintaritzak eta zuzendaritzak organoen adostasuna lortu duena, ULMA Taldea finkatzeko urrats garrantzitsua dela uste dut.

HILAREN 25EKO OSOKO BATZARRERAKO OINARRIZKO GOMENDIOAK ETA AHOLKUAK

Azaroaren 25ean gure kooperatiba guztien Ezohiko Batzarra egingo dugu Oñatiko Zubikoa kiroldegian; batzar horretan ULMA Taldearen Antolamendu Proiektu berria (POGU III) bozkatuko da.

Eli Anduagak, ULMA Taldeko Kontseilu Nagusiko Idazkari Teknikoak, batzarra modu egokian eta arazorik gabe gara dadin guztiok kontuan izan beharreko gomendio eta aholku batzuk adierazi dizkigu.

"Udalak Ibarako nahiz Olaiturriko zelaiak utzi dizkigu bertan aparkatzeko, baina kiroldegiaren inguruan egiten ari diren lanak kontuan hartuta, bertaraino autoan joatea saihestea komeni da, ahal den neurrian behintzat.

Batzarrera sartzeko atea kiroldegiko kantxarako ate handia izango da. Atean bi mahai jarriko dira, eta Negozioetako Zaintza Batzordeetako kideek bertaratutako txartelak nahiz ordezkariak jasoko dituzte. Garaiz joatea komeni da, atean pilaketak saihesteko."



ULMA Taldeko kooperatibek 2001ean Oñatiko pilotalekuan egindako Osoko Batzarraren irudia, POGU II proiektua aztertzeke.



Osteoporosiaren aurka; prebentzioa eta tratamendua

Osteoporosia pertsona talde handi batek jasaten duen gaixotasuna da, eta menopausiaren ondoren emakumeek eta oro har adinekoek izaten dituzten hezur-hausturen arrazoi nagusia da. Gaixotasuna definitzerakoan hezur-masaren gutxitzea dela esan dezakegu; horren ondorioz, hezurra porotsuago, meheago eta hauskorrago bihurtuko da, eta errazago hautsiko.

Hezurrak etengabe berritzen dira, eta organismoan kaltzioaren erreserbategisa lan egiten dute. 30 urtetik aurrera hezur kopuru txikiak galtzen hasten dira. Beste faktore batzuek ere areagotu dezakete hezur galera hori, hainbat gaixotasun edo bizi-azturek, adibidez, eta osteoporosia aurreraztea ekar dezake horrek.

Emakumeen artean osteoporosiaren kausa nagusia menopausia da, estro-

geno maila jaisten baita. 45 urtetik gorako bost emakumetatik batek eta 75 urtetik gorako hamarretik lauk dute gaixotasuna.

Osteoporosiaren arrisku-faktoreak

- Zahartzea.
- Aurretik egindako hausturak.
- Menopausia goiztiarra, naturala edo kirurgikoa.
- Tabakoa.
- Kaltzio gutxi hartzea.
- Kaltzioaren heste-xurgapen baxua.
- Txizan kaltzio kantitate handia kanporatzea.
- Gorputz-pisu txikia.
- Zenbait botika (kortikosteroideak, heparina).
- Alkohola edo kafeina hartzea.

Bigarren mailako osteoporosiaren arrazoiak

- Gaixotasun genetikoak.

- Nahasketa endokrinoak: hipertiroidismo, diabetes mellitusa, hiperparatiroidismoa,...
- Etilismo kronikoa.
- Hepatopatia kronikoak.
- Heste-xurgapen txarraren sindromea.
- Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa.
- Mieloma.
- Hemokromatosia.
- Inmobilizazio luzeak/paraplegiak
- Botika batzuk: glukokortikoideak, hormona tiroideak, antikoagulanteak...

Osteoporosiak ez du urte askoan sintomarik izaten. Gaixotasunaren ondorio klinikoak ornoen zapalketa eta hezurren haustura dira (aldaka eta erradioa, bereziki).

Diagnosia egiteko, hezurren eduki minerala neurtzen da. Horretarako,

hainbat metodo daude: dentsitometria, erradiologia sinplea eta/edo markagailu biokimikoak...

Prebentzioa eta tratamendua

Tratamendurik onena prebentzioa da. Tratamenduaren helburua hezur-masaren galera moteltzea eta ahalik eta gehien atzeratzea da, eta baita hezur-masa baxua duten pertsonetan hausturak saihestea ere. Haurtzaroan eta gaztaroan hasi behar gara osteoporosiarri aurrea hartzen, ahalik eta hezur-masa handiena lortzeko. Behar adina kaltzio kopurua hartzeak eta ariketa fisikoa egiteak hezur-masaren murrizketa eta ondorengo urteetan haustura arriskua izatea saihesten du. Ondoren, hezur-masa galtzea azkartzen edo areagotzen duten faktoreak aldatzea zuzenduko da prebentzioa. Adinekoen kasuan, hezur-masaren murrizketa garrantzitsua dutenek izan ditzaketen hezur-hausturak saihestera bideratuko da prebentzio lana.

TRATAMENDU EZ FARMAKOLOGIKOA

Kaltzio kopuru egokia hartzea. Kaltzio iturri nagusia esnea eta esnekiak dira, eta neurri txikiagoan barazkiak eta arraina. Esnekien kaltzioa hobeto xurgatzen da; oso zaila da elikagai horiek hartu gabe beharrezko kopurua lortzea.

TRATAMENDU FARMAKOLOGIKOA

Neurri farmakologikoak hezuraren desmineralizazio prozesua atzeratzera (ordezko terapia hormonal, kaltzitonin, disofonatoak, D bitamina) edo hezuraren dentsitatea handitzera (sodio fluoruroa) bideratuta daude.

Kaltzio-ekarpena. Gomendioak

Haurtzaroa (1-10 urte)	800 mg eguneko
Nerabezaroa (11-18 urte)	800-1200 mg eguneko
Helduek	800-1000 mg eguneko
Haurdunaldia eta edoskitzaroa	1200-1500 mg eguneko
Menopausia eta adinekoak	1200 mg eguneko

Elikagaien kaltzio kopurua

Elikagaiak	Kaltzio mg/ 100 g.
Gazta	700-1200
Gazta gaingabetua	275
Esne osoa	128
Jogurta	183
Izozkiak	180-200
Fruitu lehorrak	200-300
Barazkiak	50-200
Haragiak, arrainak	5-10

Iñaki Igarzabal, Laneko Osasuneko arduraduna ULMA Taldean



Sendagilearen aholkua:

- > Gehiegizko fosfato ekarpena duten produktuak saihestu, antiazidoak eta edari karbonatuak, besteak beste.
- > HEZUR GALTZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN TOXIKO ETA BOTIKAK SAIHESTU, tabakoa, alkohola, hormona tiroideak, antikoagulanteak eta antiinflamatorioak, adibidez.
- > ARIKETA FISIKOA EGITEKO OHITURA HARTU. Haurtzaroan eta nerabezaroan ariketa fisikoa egiteko ohitura dutenek hezur-masa handiagoa dutela egiaztatzen da. Ariketa fisikoak adinaren, entrenamenduaren eta bakoitzaren egoera funtzionalaren arabera izan behar du.
- > Kaltzio-ekarpena farmazia-prestakinen bidez hartu: kaltzio glukonatoa, glukonatoa eta laktato kaltzioa. Kaltzio karbonatoa.
- > Kasu gehienetan neurri higieniko eta dietetikoak eraginkorrak eta nahikoak izaten dira.

Aurten 50 urte betetzen dira Arrasateko Esperien zein iritzi duzu gure kooperatibismoaren gaur eg



Jesús Astarloa
ULMA Agrícola

Egia esan, baikorra naiz eredu kooperatiboari dagokionez, arazo ugari ikusi arren. Duela zenbait urte parte-hartzea handiagoa zen, bai, egia da..., baina garai hartako kooperatibistak gizarte desberdin batean bizi ziren, idealismo handiagorako aukera ematen zuen gizarte batean. Une hau bikaina dela esan daiteke. Kooperatiban egin ditudan 24 urteetan denetik izan dugu, ona eta txarra, eta gaur egun MCC gorantz ari dela uste dut, eraso politikoren bat jasan duen arren. Etorkizunari baikortasun handiz begiratzen diot. Pertsonalki, MCC kooperatiban egotea etorkizuneari onuragarria izango dela uste dut. Kooperatibismoa garai berrietara egokituko dela pentsatzen dut, orain arte egin duen bezala, eta uneoroko eskaerei erantzuneko diela.



Jesús M. Epelde
ULMA Carretilas Elevadoras

Gaur egun gauzak oso azkar doaz eta, askotan, ez da erraza izaten abiadura horri eustea. Kooperatiban izandako esperientziari dagokionez, nire lehenengo bizipenak atzokoak direla dirudien arren, 60ko urteetako bigarren zatia dagozkio. Urte haietan José M^a Arizmendiari eta ezagutu nuen, baina oso gaztea nintzenez, ez nintzen guztiz jabetu mugimendu hark etorkizuneari izango zuen eraginaz. Garai hartan, estatus politikoak, sozialak, lanekoak, erlijiosoak etab. muga handiak ezartzen zizkion gure belaunaldiari. Zera esan nahi dut, inguru honetan, gure bizitzaren oinarri izan diren printzipioak eta balioak gure gizartean ere nabari zirela, eta gure gizartea esaten dudanean Euskal Herriari buruz ari naiz. Gaur egun, eragin eremua mundu osora hedatu da, eta kooperatibetako langileen erdia baino gehiago –enpresarekiko duten konpromisoa alde batera utzita– ez dira bazkideak, eta lanean jarraitzen dugun bazkideok, merkatu globalaren lege zorrotzen eta gure nortasunari eta izaerari eusteko ahaleginaren arteko borrokari aurre egin behar diogu. Gure seme-alabengan eta bilobengan pentsatzean, gogoeta egin behar dugula uste dut, eta munduan dugun tokia bermatuko duten oinarriak ezarri behar ditugula, baina gure nortasunari eutsiz, ezeri uko egin gabe. 50 urte barru jarraitzen dutenak arto sentitzea garrantzitsua iruditzen zait, nor diren, nondik datozen eta nora doazen jakitea, ideia horretan Taldea osatzen duten giza talde guztiak bilduz. Etorkizuna ez da erraza izango, baina orain arteko bidea ere ez da izan. Munduko produkzio gune handiek eskulan merkeagoa duten kokalekuak bilatuko dituzte, eta deslokalizazioak mundu osoko enpresen eta gure kooperatiben egiturak astinduko ditu. Horren aurrean, belaunaldi berriek orain arte, 50 urte hauetan gure ezaugarri izan diren eta defendatu ditugun balioei eusteko prest egon behar dute, egoera berriak gainditzeko eta aurrera egiteko eman beharreko pausoak emanez. Beste ikuspegi batetik begiratuta, kooperatiben mugimenduari urrunetik begiratuta, behatoki hipotetiko batetik hain zuzen ere, fenomenoaren neurria oso handia dela pentsatzen dut, konplexutasun handikoa, eta fenomeno hori giza jarreraren ikuspegitik ulertzeko edo azaltzeko antropologo baten azterketa beharko litzatekeela, haren ikuspegiak gure taldearen behaketa zabalagoa eta sakonagoa egingo bailuke.



Javier Galdos
ULMA Construcción

Hirurogeiko hamarkadan kooperatibaren munduan sartu nintzenetik, hasieran idealismo handiko eredu zena askoz ere pragmatikoagoa bihurtu da urteen poderioz. Politika pragmatiko horri esker maila sozio-ekonomiko garrantzitsuak lortu ditugu, espero ez genuen hazkundea eta lehiakortasun maila handia lortu ditugu nazioartean. Hala ere, hasieran aurkitu nuen idealismo hura bidean gelditu da, bazkideen parte-hartzea eta hurbiltasuna murriztu egin dira, eta zuzendaritza taldearekiko urrutzea gertatu da. Etorkizunari baikortasunez begiratzen diot, gure eredu bermatzen duen errealitatea hortxe baitago; hala ere, gaur egungo ereduak gogoeta egitera behartzen gaitu, gure egitura industrialari eta sozialari nola aurre egin aztertu behar dugu, merkatuko lehiakortasuna bermatzeko eta, aldi berean, balio kooperatibistei eusteko.

tzia Kooperatiboa hasi zenetik; ungo egoeraz eta nola ikusten duzu etorkizuna?



Roberto Guridi
ULMA Forja

Pertsonalki, kooperatibaren berezko hainbat balio, hala nola jabetza zentzua, galdu izanak atsekabetzen nau, horrek Negozioaren proiektu bateratuan parte-hartzea txikitu dela adierazten baitu. Lehen bazkideen parte-hartzea handiagoa zela uste dut, Negozioari ekarpen handiagoa egiten zitzaioela eta bertan gertatzen zena hurbilagotik bizi zutela. Askotan, proiektuan parte hartzeko arrazoirik garrantzitsuen dirua izaten da. Badakit bazkideak ez gaudela gizarteko joera kontsumistatik libre, baina lankidetzeta, elkartasuna eta antzeko balioak sustatu behar direla uste dut. Bestalde, oro har, kooperatibetako zuzendaritza taldeetan konfiantza falta da nagusi, eta jendeak zuzendaritza taldeek ezarritako jarraibideak bete baino ez ditu egiten, jarrera pasiboa edo kontrakoa ere hartuz. Kooperatibak elkarrekin komunikatzeko eskaintzen dituen bideak sendotu behar dira, batez ere, zuzendaritza organoak eta gizarte organoak dagokienez. Etorkizuna ondo ikusten dut, enpresa proiektu sendoari eta gutxieneko espiritu kooperatiboari eusten diegun bitartean. Gaur egungo egoerak ez ditu balio kooperatibistak sustatzen, gizartea gero eta individualistagoa baita, eta aisialdirako eskaintza gero eta zabalagoa; horrek, nolabait ere, kooperatiben munduan nagusi izan behar duen ahalegin bateratuaren espiritua sustatzea galarazten du. Dena dela, etorkizunari baikor begiratzen diot, kooperatibismoaren oinarriko zenbait balio galdu arren, kooperatibek mundu areritsua honetara egokitzen jakin dutela uste baitut, beste enpresa eredu batzuekin lehiatuz eta horiei aurre hartuz.



Mikel Azkarate
ULMA Handling Systems

Denborak aurrera egin ahala, kooperatibismoaren kontzientzia galdu egin dela uste dut. Sartzen diren langile berriek ez dute kooperatiba bateko kide izateko asmoarekin egiten, eta behin lanean hasi ondoren ere ez dago kontzientzia hori sustatuko duen prestakuntza berezirik. Baina arazo hori ez dagokie soilik kooperatibei, herri mailako gainerako jardueretan ere gauza bera gertatzen da, talde bateko kide izatearen ideia galtzen ari da, eta norbanakoaren interesak du lehentasuna. Lanean hasi nintzenean dozena bat langile zituen negozioak, eta prestakuntza berezirik jaso ez genuen arren, lan baldintzei esker kooperatibistak sentitzen ginen. Parte-hartzeak, lanaren helburuarekin identifikatzeak eta gure arteko komunikazio zuzenak lankidetzeta hori sustatzen zuten. Orain jende gehiago gaude lanean (ehun baino gehiago), eta horrek taldearen komunikazio zuzenean eragin du; gainera, gizarte organoek ez dute gabezia hori betetzen. Enpresaren zuzendaritzaren eta bazkide gazteen artean urruntze bat gertatu da, eta horrek ez du lankidetzaren garapena errazten. Etorkizunean, kooperatibak merkatuak zehazten duenari (globalizazioa etab.) egokitu beharko zaizkio. Aldaketa berriak iritsiko dira, eta egokitu egin beharko dugu aurrera egin ahal izateko. Gorabehera handiak sortuko dira "hemengo" kooperatiba defendatzen dutenen eta zabalduago dauden edo baliabideak munduan sakabanatuta dituzten artean.




Angel García
ULMA Hormigón Polímero

Gure kooperatibek, ikuspuntu ekonomikotik, une garrantzitsua bizi dutela uste dut, hazten ari baitira eta arrakasta handiak lortu baitituzte, zenbakiak erakusten dutenez; kooperatiben mugimenduaren aitzindarien ikuspegi baikorra ere gaingitu dute. Alderdi sozialari dagokionez, aldiz, gero eta gehiago urrundu gara hasierako ikuspegitik. Alfonso Gorroñogoitiak, Ulgor-en (gaur Fagor) sortzaileetako batek, honela erantzuten dio **El cooperativismo de Mondragón, Interioridades de una utopía** liburuan, ahaleginak merezi ote duen galderari: "Arrazionalki erantzuna baiezkoa da, jakina, inolako zalantzarik gabe. Bihotzak erantzuten duenean, aldiz, zalantzak sortzen dira, herri bidezkoagoa, gizatiarragoa, solidarioagoa egin nahi izan baitugu, baina emaitza bestelakoa izan da, elkartasun zentzua galdu duen herria, hedonistagoa, "kristau kutsua galdu duena". Ez dugu inoiz jakingo hasierako ikuspegi sozial hori betetzeak gure kooperatiben orainean nola eragingo lukeen. Gure kooperatiben enpresa etorkizunari begira, aurrerantzean ere enpresa ikuspegia beteko dela uste dut, baina hurrengo urteak, zalantzarik gabe, azken hamarrak baino askoz ere gogorragoak izango dira. Guztiok izan beharko genukeen ikuspegi sozialari dagokionez, paperean baino ez dagoela uste dut, eta idazten dugunaren eta gure pentsamenduaren eta jokaeraren arteko inkoherentzia hori oso arriskutsua da eta aurre egin behar diogu.




Andrés Zabala
ULMA Packaging

Kooperatiben gaur egungo egoera zentzu guztietan **"handia"** dela uste dut. Hazkunde ekonomikoari dagokionez, langile kopuruari, lanpostuen hazkunderari nahiz negozioen bitzasunari eta dinamismoari dagokienez. **"Handia"** da baita ere bazkideek kooperatiba baten funtzionamenduari eta filosofiari buruz duten ezjakintasuna; organo exekutiboak eta oinarri soziala urrundu egin dira eta komunikazioa galdu da; lanpostu kopuruaren eta behin-behineko langileen arteko erlazioa ez da egokia eta soldatei dagokienez ere gorabehera handiak daude. Lehenengo zatia hazkundera bigarren zatia hazkundera inplikatzeko al du nahitaez? Lege natural saihestezina izango al da? Belaunaldi berrien lanbide prestakuntza da onena. Etorkizuna ere oso bestelakoa izango da, pertsonen eta erakundeen gehiago eskatuko zaie. Laneko eta gizarteko harremanek bilakaera izan dute, eta orain arte ezagutzen ez genituen formak sortu dira. Langileen gaitasun potentziala etorkizunean izango ditugun apustuei aurre egiteko gai izango dela uste dut.



40 urte elkarrekin



Aita Santuak 1982an Loiolako Santutegira egin zuen bisitan, ULMA Construcción arduratu zen egun horretarako prestatu zen aldarea egiteaz eta estaltzeaz. Goiko irudian muntaian lan egin zuen ULMAko taldea ikus dezakegu: Telesforo Zubia, Javier Arcauz, Santiago Mendiola, Luís Urcelay, Rafael Cortabarría, Jose M^a Madina, Jesús Santamaría, Francisco Campo, Juan M^a Beitia, José Manuel Prieto, José Antonio Ugarte, Javier Galdos.

Gutarren argazkiak eta historiak

Begira aldizkariak hurrengo zenbakian izango duen irudi berriaren aurrerapen bat da orain aurkezten dizuegun aldizkariaren atal berri hau. Izenak dioen bezala, atal berri honek gure bazkideek eta langileek euren lan eremutik at dituzten historiak islatu nahi ditu, gizatasunaren ikuspegitik interesa duten historiak, hain zuzen.

Gaurtik aurrera zuek parte hartzea eta historia eta argazki berriak aurkeztea nahiko genuke. Horretarako, orain arte bezalaxe, bidali mezua begira@ulma.es helbidera, edo deitu ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletara, 943 034900 zenbakira.

Ondoren aurkezten dugun historia honek, lehenengoak, argi eta garbi islatzen du herrien arteko adiskidetasuna eta lankidetzaren indartze-ko eta sustatzeko nahia.

Soukeina Bouhali Saharako neskatila bat da, eta Oñatin igaro ditu udako bi hilabete, gure bazkide baten etxean.

Aljeriako basamortuan, Tinduf inguruan, dauden saharar errefuxiatu-esparruetatik etorri zen Soukeina gure herrira, Arrasateko Saharar Herriarekiko Elkartasunezko Elkarteak antolatutako "Oporrak bakean" programari esker.



Mirari Leibar.
Oñatin jaio zen. 1990etik dago ULMA Forjan.
Merkataritza Saila.

Irudian, Soukeina Bouhali eta Mirari Leibar Urbian.

Begira aldizkariarekin batera bazkide guztioi banatu ziguten liburuxkan, ULMA Taldeari buruzko mahai inguru bat dator, eta hainbat pertsonak 80ko hamarkadan ULMA Taldeak izan zuen ibilbidea aztertzen dute bertan. Oro har, mahai inguru horretan adierazten diren iritziek zuzen islatzen dituzte urte zail horietako ULMAren aldagaiak, nire ustez.

Hala ere, parte hartzaile batek egiten duen adierazpenarekin ez nago batere ados. Enarari buruz egiten den iruzkinaz ari naiz, eta honako hau dio hitzez hitz: "gaur egun dudan esperientziarekin ENARAREN kasua eman didate aztertzeke, eta oraindik zabalik jarraitzeke esku miragarriren baten laguntza izan dugula uste dut. 85ean ENARA lehenengo mailara iritsi zen arlo guztietan, barne saneamendu bat egin ostean."

Hasteko, azken esaldi hori aurrez esandakoarekin kontraesanean dagoela dirudi, baina ez ditut hemen aztertuko 85eko urtea Enararentzat aparteko urtea izate horretan eragina izan zuten faktore positiboak; esku miragarriaz arituko naiz soilik.

Begi bistakoa da ULMA Forja enpresak (aurrez ENARA zenak) azken 13 urtean arrakasta handia izan duela, ULMA Taldeko negozio gehientsuenek bezalaxe. Urte on horien arrazoia ez da esku miragarriren bat. Enpresak garbi izan ditu helburu estrategikoak, garbi ikusi du industria eta merkataritza esparruetan norantz jo behar zuen, inbertsioetan bete-betean asmatu du, ondo kudeatu da, eta batez ere, enpresan ondo integratutako talde bat izan du beti lanean, ahal duen guztia eman duena.

Ziur nago etorkizunean ere izango ditugula iraganean izandako urte gogor haien antzekoak, baina ziur nago, baita ere, urte horiei aurre egiteko enpresa ongi prestatuta egongo dela, eta indarberriturik irtengo dela jasan dezakeen krisialdi horretatik. Guretzako zortea xehetasun guztiak gogoetaren bidez ondo zaintzea baita.

Jabier Altube. ULMA Forja enpresako bazkidea

Gure adiskide eta lankide zen Jose Vidali

Urriak 17an hil zen Jose Vidal, gure laguna, 81 urterekin. 1961ean ULMA sortu zuten hamabost bazkideetako bat zen. Zehazki, 12. bazkidea zen. Julio Sainzekin (duela gutxi hil da hau ere) batera etorri zen Oñatira, Ignacio Larrañagari esker, eta biltzeko makinaren alderdi teknikoaren arduraria hartu zuen. Biak ziren adituak txokolatetaren munduan eta industria horretako makinaren munduan. Merkataria lanak ere egin behar izan zituen bai Espainian eta baita atzerrian ere, teknikari kualifikatuenei sarritan gertatu ohi zaien moduan. Julio eta Jose, biak, "katalanak" ziren. Baina, nahiz eta biak Bartzelonatik etorri, bietako inor ez zen Katalunian jaioa. Jose Vidalek "linea verde" izeneko hainbat biltzeko makina diseinatu zituen, besteak beste;

- M-A (txokolate-tabletak) eta M-A-C eratorriak kontserba latetarako: M-A-E
- V-2, txokolatinetarako eta galletetarako, eta V-2-A eratorriak azukre koskorretarako: V-2-N, V-2-N-A-
- B-1 xaboiatarako
- DH-2 bonboietarako
- E-3 tabletetarako
- K-5 makiladun karameluetarako

Film zabalgarrien makinak (BF-1 eta Chik) diseinatzen lehena izan zen gainera. 1985eko ekainean erretiratu zen, 61 urte zituela. Joseren heriotzarekin ULMAren historiaren zati bat eta lagun on bat galdu dugu.

José A. Urteaga. ULMA Packaging



Fabrikara bisita; esker onez

Duela egun batzuk esperientzia aberasgarri batean parte hartzeko aukera izan nuen; filialeko bezeroen talde batekin batera ULMA Construcción fabrika bisitatu nuen. Ibilaldia fabrika eremutik haratago zabaldu zen, eta Euskal Herriko hainbat txoko eta bazter ezagutu genituen. Harrituta utzi gintuzten hainbat tokik eta lagunek.

Marketing sailekoek lagundu zigiten, eta benetako gidari bokazioa azaldu zuten, beren esku zegoen guztia egin baitzuten etxean bageunde bezala sentiarazteko.

Buenos Airesera itzulita, gurekin izan diren bezeroek ULMAri esker oneko eta laudoriozko hitzak zuzendu dizkiote behin eta berriz, horren ondo hartu gaituztelako. Horrek guztiak harro sentiarazten nau, urrutiko filial honetatik lan egiten dudana enpresa ikusi ahal izan baitut, eta bisitariari eskaintza zabala emateko gai dela konturatu bainaiz:

Fabrika modernoa, eskala handikoa, segurua, ordenatua, eta gizonezkoekin aurrez aurre lanean aritzen diren emakume lirain ugari dituen (emakumeen benetako askatasuna). Baina ULMAk munduari erakusteko duen gauzarik onena eta bitxiena enpresa egiteko eredu kooperatibista da, oraindik beste leku batzuetan pentsaezina bada ere; eta baita bere jendearen kalitatea ere.

Edonon baitaude fabrikak, baina ez baita ohikoa beste hori edozein lekutan aurkitzea.

Besterik gabe, hemendik nire esker ona azaldu nahi nizueke esperientzia hau posible egin zenuten guztioi, eta aurrerantzean beste askok gozatzeko aukera izan dezatela.

**Eduardo Legaspi.
Argentinako ULMA Construcción
enpresako Kudeatzaile komertziala.**

ERRETIROA HARTU DUTENAK:

2005eko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean ULMA Taldean erretiroa hartu dutenak.



JESÚS Mª JUARISTI



GERMÁN PÉREZ



MARTÍN LOITI



ALBERTO ZABALETA



JOSÉ Mª URIARTE



ESTEBAN MARCULETA



VICENTE ERRASTI



SECUNDINO
CERQUEIRA

*Eskerrik asko
guztíei eta goza
dezazuela!
Zorionak*



IRADOKIZUNAK

Animatu eta jarraitu iradokizun gehiago bidaltzen, honako helbideetara:

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otañdi Zuhaiztia, 3 - 13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.; BEGIRA
begira@ulma.es

Iritzia bidali duten edo parte hartu duten guztien artean, Arrasate Argitan elkarteak argitaratu berri duen Oñatiko argazkien liburu bat zozketatuko da.



Edurne Pasabaneke origarri bat bidali zigun Himalaiatik.

Idatz dezagun gure historia guztion artean



Gure irakurleei;

Begira aldizkariaren hurrengo zenbakian, hamarkadaz hamarkada, ULMAren historia biltzen duten gehigarriei amaiera emango zaie, 90eko hamarkadaren gehigarriarekin; gure irakurleen artean horren harrera ona izaten ari den bildumaren barnean, laugarren gehigarria da honako hau.

Etxean urte haietako agiriak, argazkiak, bideoak, albisteak eta bestelakoak baldin badituzue, ondo-ko helbidera bidaltzea eskertuko genizueke:

Postaz;

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otadui Zuhaiztia, 3 – 13 p.k.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

e-mailez; begira@ulma.es

Azkenik, edozein gauza argitzea nahi baduzue edo edozein zalantza baldin baduzue, Mila Barrutiarengana jo dezakezue ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletan (Telefonia: 943 03 49 00). Eskerrik asko aurrez emandako laguntzarengatik.

**Har ezazue parte
proiektu honetan!**